

AUPA KARMELO!

1. Gotzai Laguntzaileak
gaur
nakar bertso-kantura,
adiskide modura;
ustekabeen zaitue
jaso gotzai-gradura.
“Mila ZORION, Karmelo”!
Holan dogu ohitura,
hartu zeuk zelan-gura...
Gaurtik “txano gorritxoak”
emongotsu azkura.

3. Ondo dakigu, ez zara
euskalzale motela,
ez fededun epela;
lehendik dozu merezia
euskaldunen txapela.
Ricardo Blazquez datorku
makila ta kapela,
badator, datorrela;
berak ta guk zeu zaitugu
“laguntzaile” bezela.

2. Atzo narruko galantaz
lurperaino jausia,
amets danak ausia...
Gaur Elizak jarri zaitu
bere “Etxe-Nagusia”.
Heldutxoa zagoz, baina
ez zagoz itxusia;
hemen dago auzia:
gorputz ta arima jokatu,
emon erakutsia!

4. Sarritan esan ohi dogu:
“Egin bedi Zuk nahia”!
Hor amaitzen da jaia...
Hain urruti joan barik,
ez jaku falta gaia!
Titulu danen gaineratik
zu zaitugu anaia,
bardin Blazquez gotzaia;
zuek eta guk batera
salbau daigun Bizkaia!